

2011KO EPE: INSKRIPZIOEI BURUZKO INFORMAZIOA: 2011KO ABENDUKO DEIALDIAK

2011ko uztailearen 27ko EHAAn, Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailearen 15eko 1282/2011 Ebazpena argitaratu zen, hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri orokorrak onartzen dituen.

Abenduaren 1eko EHAAn, Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1763/2011, 1764/2011, 1765/2011, 1766/2011, 1767/2011 eta 1768/2011 Ebazpenak argitaratu berri dira, ondorengo kategorien deialdia eta oinarri espezifikoak onartzen dituztenak:

Erizaina

Erizaintzako laguntzailea

Administrari laguntzailea

Administraria

Zeladorea

Zerbitzuetako langilea

Hautaketa-prozesu honetako kategoria hauetan **izena emateko epea** honakoa izango da: **2011ko abenduaren 2ko 8:30etik abenduaren 21eko 14:00etara**.

Izena emateko **eskabidea** elektronikoki egin behar da <http://www.osakidetza.euskadi.net> web orrian, bide honetan: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/2011ko EPE/Eskabidea.

Hautaketa-prozesuan izena ematean, eskabide elektronikoa bete behar da, eta inskripzio-eskabideak ordaindu. Bi jarduerak izena emateko epean egin behar dira. Izena emateko epean ez da inolako dokumentaziorik entregatu behar.

Hautaketa-prozesuan, honako pasahitza erabili behar duzu inskripzio elektronikorako:

- 2011ko Kontratazio Zerrendetan izena eman bazenuen: prozesu horretan erabilitako kodea
- 2011ko Kontratazio Zerrendetan izena eman ez baina 2008ko EPEan izena eman bazenuen: 2008ko EPEan izena emateko erabili zenuena.
- 2008ko EPEan izena eman ez bazenuen, baina onartuta bazeuden 2008ko Kontratazio Zerrendetan: 2008ko Kontratazio Zerrendetan izena emateko erabili zenuena.
- Aurreko kodeekin ezin baduzu zerrendetan izenik eman, baina Osakidetzan lan egin baduzu eta bertan curriculum vitae baduzu: zure curriculumera sartzeko erabiltzen duzun pasahitza.
- Aurreko kasu horietakoren batean ere ez bazaude, eskabidea egiterakoan aplikaziora lehen aldiz sartzen zarenean zuk adieraziko duzu pasahitza. Pasahitz hori gogoan hartu beharko duzu etorkizuneko kontsultetarako eta hautaketa-prozesuetako jardueretarako.
 - Pasahitza gogoratzen ez baduzu, eskabide-formularioaren bitartez eska dezakezu, aplikazioak pasahitza eskatzen dizunean sarbide-kontrollean. Halakoetan, automatikoki emango dizute pasahitza, eta prozesuan eman zenuen pasahitza posta elektronikora bidaliko dizute. Horrela ere ezingo bazenu pasahitza eskuratu, edota zuri bidalitakoarekin ezingo bazenu eskabiderik egin, 945006150 telefonora dei dezakezu, eta bertan esango dizute nola

eskatu eta jaso pasahitza.

ZUZENeko ARRETA:

- * Bilbo: Emergentsietako Prestakuntza Gela - Doctor Areilza kalea, 31
- * Donostia-San Sebastián: San Martín kalea, 48 behea
- * Vitoria-Gasteiz: Osakidetzako Erakunde Zentrala (Araba kalea, 45)

Bulego-orduak: astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 16:00etara
Abenduaren 21ean: 9:00etatik 13:00etara

Pertsona interesatuek deialdiari, zuzeneko arretako bulegoen kokapenari eta hautaketa-prozesuari buruzko informazio gehiago nahi badute helbide honetan kontsulta dezakete: <http://www.osakidetza.euskadi.net> (Bidea: Profesionalak/Giza Baliabideak/Hautaketa eta Horniketa/2011ko EPE) eta 945006150 telefonoan.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 1ean.